Kontsumoko Prezioen Indizea (Oinarria: 2025)
2026ko urria

KPIaren urteko aldakuntza-tasa % 4,8koa izan da urrian Nafarroan, hau da, irailean erregistratutakoa bost hamarren txikiagoa


Indize orokorraren hileko aldakuntza % 0,4koa izan da

2026ko azaroaren 13a

Azpiko inflazioaren urteko tasa bost hamarren jaitsi da eta % 2,9koa izan da

1. GRAFIKOA

KPIaren urtetik urterako aldakuntza-tasak (%)



Iturria: Nastat, INEren Kontsumoko Prezioen Indizea oinarri hartuta

CONTACTO I HARREMANETARAKO
estadistica@navarra.es
848 42 34 00

URTEKO BILAKAERA

Nafarroan, Kontsumoko Prezioen Indizearen (KPI) urteko tasa % 4,8koa izan da 2026ko urrian, hau da, aurreko hilabetean erregistratutakoa baino bost hamarren txikiagoa.

Urteko tasaren bilakaeran eragin positiborik handiena izan duten taldeak honako hauek izan dira:


- **Informazioa eta komunikazioak:** % 4,8ko urteko aldakuntza izan du, hau da, aurreko hilabetean erregistratutakoa baino puntu bat handiagoa.
- **Osasuna:** % 1,4ko tasa, hau da, aurreko hilabetean erregistratutakoa baino zortzi hamarren handiagoa.
- **Aisialdiko jarduerak, kirola eta kultura:** % 4,3ko aldakuntza, hau da, aurreko hilabetean baino bost hamarren handiagoa.

Bestalde, urteko tasaren bilakaeran eragin negatiborik handiena izan duten taldeak honako hauek izan dira:

- **Jantziak eta oinetakoak:** % 2,4ko urteko aldakuntza, hau da, aurreko hilabetean erregistratutakoa baino zortzi puntu eta bost hamarren txikiagoa.
- **Garraioa:** % 9,6ko tasa izan du, hau da, aurreko hilabetean erregistratutakoa baino zazpi hamarren txikiagoa.

2. GRAFIKOA

2026ko urrian Nafarroako urteko tasak aurreko hilabetearekin izan duen aldea



Iturria: Nastat, INEren Kontsumoko Prezioen Indizea oinarri hartuta

Azpiko inflazio-tasa. Azpiko inflazioaren urteko aldakuntza-tasa (Indize orokorra, landu gabeko elikagairik eta produktu energetikorik gabe) % 2,9koa izan da Nafarroan, hots, bost hamarren jaitsi da, eta KPI orokorra baino puntu bat eta bederatzi hamarren txikiagoa izan da.

CONTACTO I HARREMANETARAKO
estadistica@navarra.es
848 42 34 00

HILEKO BILAKAERA

Urrian, Nafarroako KPI orokorraren hileko aldakuntza-tasa % 0,4koa izan da.

Indize orokorrean eragin positiborik handiena izan duten taldeak honako hauek dira:

- **Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak:** % 1,4ko aldakuntza eta 0,252ko eragina hileko indize orokorrean.
- **Jantziak eta oinetakoak:** % 6,0ko tasa eta 0,243ko eragina.
- **Etxebizitza:** % 0,5eko tasa eta 0,060ko eragina.

Bestalde, KPIaren hileko tasan eragin negatiboa izan duten talde bakarrak honako hauek dira:

- **Jatetxeak eta ostatu-zerbitzuak:** –% 0,5eko tasa eta –0,092ko eragina indize orokorrean.
- **Aisialdiko jarduerak, kirola eta kultura:** –% 1,0ko tasa eta –0,075eko eragina.
- **Garraioa:** –% 0,4ko tasa eta –0,061eko eragina.

ESPAINIAKO DATUAK

- KPIaren **urteko aldakuntza-tasa** % 4,9koa izan da urrian, hau da, irailean erregistratutakoaren antzekoa.
- **Azpiko inflazioaren** urteko tasa % 3,1ekoa izan da, irailean erregistratutakoaren antzekoa.
- Indize orokorraren **hileko aldakuntza** % 0,6koa izan da.

1. TAULA

Kontsumoko Prezioen Indizeak Nafarroan eta Espainian (Oinarria: 2025). 2026ko urria

Taldea	NAFARROA				ESPAINIA			
	Indizea	Aldakuntza (%)			Indizea	Aldakuntza (%)		
		Hilekoa	Urtea hasi zenetik	Urtekoa		Hilekoa	Urtea hasi zenetik	Urtekoa
Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak	103,6	1,4	2,2	2,5	103,2	1,2	1,9	2,4
Alkoholdun edariak eta tabakoa	103,1	0,4	1,7	2,3	103,4	0,1	1,9	2,8
Jantziak eta oinetakoak	110,8	6,0	3,0	2,4	105,8	7,9	-1,2	1,8
Etxebizitza	111,4	0,5	10,1	10,4	109,0	1,3	7,1	7,6
Altzariak eta etxeko hornidura	102,3	0,4	1,7	1,7	101,8	0,4	1,3	1,5
Osasuna	101,8	0,0	1,4	1,4	102,5	0,2	1,7	2,0
Garraioa	109,7	-0,4	9,3	9,6	110,6	0,1	9,9	10,3
Informazioa eta komunikazioak	104,3	1,3	5,2	4,8	103,5	1,1	4,5	4,2
Aisialdiko jarduerak, kirola eta kultura	102,6	-1,0	0,6	4,3	103,0	-0,5	1,3	4,1
Hezkuntza-zerbitzuak	105,1	1,1	3,0	3,0	103,8	1,0	2,0	2,3
Jatetxeak eta ostatu-zerbitzuak	103,8	-0,5	3,4	2,8	106,3	-0,3	5,1	4,8
Aseguruak eta finantza-zerbitzuak	105,5	0,1	4,2	4,2	104,6	0,1	3,5	3,5
Zaintza pertsonala, gizarte-babesa eta beste batzuk	103,7	0,5	2,5	3,4	103,6	0,3	2,6	3,1
INDIZE OROKORRA	**105,6**	**0,4**	**4,4**	**4,8**	**105,7**	**0,6**	**4,3**	**4,9**

Iturria: Nastat, INEren Kontsumoko Prezioen Indizea oinarri hartuta

CONTACTO I HARREMANETARAKO
estadistica@navarra.es
848 42 34 00

KPI KALKULAGAILUA

Jakin nahi al duzu zenbat aldatu den KPIa bi aldiren artean? Errenta bat eguneratu behar al duzu?

Kalkulagailu hau erabil dezakezu; Nafarroako eta Espainiako aldakuntzak lortuko dituzu.

OHAR METODOLOGIKOA

Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) koiunturako adierazle bat da, eta Espainian bizi diren familiek eskuratutako kontsumoko ondasun eta zerbitzuen prezioen bilakaera neurtzen du.

Estatistikako Institutu Nazionalak egindako estatistika-eragiketa da, eta ezaugarri nagusi hauek ditu:

- **Inkesta mota:** jarraitua, hilean behin egiten dena
- **Oinarrizko aldia:** 2025
- **Haztapenen erreferentzia-aldia:** aurreko urtea
- **Artikulu kopurua:**
  487 ohiko bilketa bidez eta 263 eskaner datakoak
- **Ohar kopurua:** Estatu osorako bilketa tradizionaleko artikuluen 200.000 prezio inguru hilean.
- **Sailkapen funtzionala:**
  ECOICOP, 2. bertsioa
- **Kalkulu-metodo orokorra:**
  Laspeyres kateatua
- **Bilketa-metodoa:** establezimenduetara egindako bisita pertsonalak, posta elektronikoa, telefonoa, internet eta scanner data

Informazio gehiago nahi izanez gero, Estatistikako Institutu Nazionalaren webgunean kontsultatu daiteke adierazle honetarako metodologia.

INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Kontsumoko Prezioen Indizea. 2026ko urria.

CONTACTO I HARREMANETARAKO
estadistica@navarra.es
848 42 34 00